

Baketik urteko gogoeta, proposamen eta dibulgazio ekimena

R

bizikidetza eta adiskidetze
kultura berri baterako

2020

Indargunea

Sare sozialak berregin

baketik

2020ko otsaila



Bizikidetza eta adiskidetze
kultura berri baterako

2020

Indargunea

Indarguneak

2011ko urtarrilean, Baketikek "Adiskidetzarako indarguneak" proiektua jarri zuen martxan. Ekimen horren bidez, urte bakoitzaren hasieran dokumentu bat aurkezten dugu, gure gizartean bizikidetzaren eta adiskidetzearen kultura berri bat lortzen laguntzeko.

Lehenbiziko indargunea "Berradiskidetze-prozesu bat modu partekatuan kokatzeko eta bultzatzeko oinarri-proposamena" izan zen. 2012ko indarguneak "Bost proposamen zehatz" zuen izenburua: politika, udal, hezkuntza, elkarte eta eguneroko bizitzaren alorretara zuzendutako proposamenak. 2013ko indarguneak udalen eta ikastetxeen arteko aliantza estrategiko bat proposatzen zuen, herri eta hirietan bizikidetza sustatzeko. 2014ko indarguneak humanizazioa defendatzen zuen topagune eraikitzaile gisa, sufrimendu pertsonalak eta kolektiboak murrizteko eta giza harremanak, harreman sozialak eta politikoak berregiteko. 2015eko indarguneak parte-hartze sozialaren aldeko apustua egin zuen, bakean eta bizikidetzan aurrera egiteko beharrezko energia delakoan. Sufrimendura hurbiltzeko premia jabetuta, 2016ko indarguneak gogoeta eta ekintza soziala sustatu nahi izan zituen, maila pertsonalean zein sozialean humanizazioaren bidean urratsak egin ahal izateko. 2017koak elkartasunari buruz hausnartu nahi izan zuen, sufrimendu bidegabeak eta pertsonen duintasunaren balioaren galera nabariak diren honetan, halako egoeran ezinbestekoak baitira pertsona horienganako elkartasuna eta konpromiso pertsonal eta kolektiboa.

2018an 70 urte bete ziren "Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala" aldarrikatu zenetik, eta gure indarguneak deklarazioaren egoerari, kontraesanei eta potentzialtasunari buruzko hausnarketa egitea izan zuen ardatz. Baketikek eta San Telmo Museoa, elkarlanean, urte osoan antolatu zituzten Giza Eskubideei buruzko hitzaldiak, eta haietan gogoeta izan zen muina. Horrekin guztiarekin, 2019ko indarguneak kontraste-ariketa bat egin zuen 2018ko Indargunean egin zen hausnarketaren eta hitzaldietan ikasitako guztiaren artean, eta, horrela, ondorio batzuk atera genituen Giza Eskubideen egoerari, kontraesanei eta potentzialtasunari buruz.

Orain, 2020. urtea hasi berria dela, adiskidetzearen kontzeptura itzultzea erabaki dugu (edo, nahiago bada, harremanak berregin edo konpontzearen gaira), ikuspegi lokal batetik betiere, funtsezkotzat jotzen dugun esparru horretan egindako aurrerapenak eta ikasitakoa aprobetxatzeko eta lan-esparru on bat sortzeko, indarkeriaren eta polarizazioaren ziklo luzeak eragindako ehun soziala berreraiki nahian.



Bizikidetza eta adiskidetze
kultura berri baterako

2020

Indargunea

Sarrera

"Ipar Amerikako indigenek, erabaki garrantzitsu bat hartu aurretik, hurrengo zazpi belaunaldiak izaten dituzte gogoan".

Zenbaki zehatza edo mitikoa dirudi, baina, etorkizunaz ez ezik, gu hilik egoten garenean hemen egongo den jende zehatzaz hitz egiten digu. Denboraren jabe direla uste duten politikariak ditut buruan, denbora administratzeko eta definitzeko modu bakarra balitz bezala jokatzeko baitute: beren modua. Egiaren Batzordeari bi urte eta hilabete bat eskaseko lana gelditzen zaio. Baina indigenek erakusten digute zertarako egiten dugun lan: hurrengo zazpi belaunaldientzat.

Carlos Martín Beristain, 7en denbora, Egiaren Batzordearen blogeko sarrera. 2019/11/5

Euskal gizarteak nabarmen egin du aurrera bizikidetza baketsuago baterako bidean, zauri asko utzi dituzten hamarkada askotako indarkeriaren eta zatiketaren ondoren. Heriotzak eta dolu zailak bizi izan ditugu, zauri fisiko eta emozionalak, baita moralak ere. Eta hautsi dira harremanak, taldeak, komunitateak eta, batez ere, konfiantza urratu da.

Egoera horren aurrean, hamarkadak dira gizartearen ehuna sendatzen eta berreraikitzen saiatzeko ekimenak egiten ari direla. Ekimen horietako batzuk mugari izan ziren, ausardiagatik eta aurrekaririk gabeko bizikidetzari egindako ekarpenagatik: hainbat jatorritako indarkerien biktimen arteko topaketak, biktima eta biktimarioen artekoak, sentsibilitate desberdinetako pertsonen artekoak zenbait herritan, edo, besterik gabe, egunero espazio berberak partekatzen ez zituzten pertsonen artekoak. Ekimen asko izan dira, eta berri ere ez dira gaur egun. Esan nahi al du horrek, ordea, normaltasunera iritsi garela? Irtsi gara gure helmugara?

Bakea eraikitzeko bideak ez du amaierarik. Eraikitzeaz ari gara, ibiltzeaz, eta ez leku jakin batera iriste hutsaz. Izan ere, lortutako mugari edo helburu bakoitzak bide berriak irekitzen ditu. Hori bera gertatzen da topagune hauekin: gizartearen ehuna oraindik urratua dagoela berresten dute, eta ohartzen gara horrek pertsona askoren eguneroko bizitzan duela eragina, eta sare soziala berreraikitzeko eta sendatzeko guneak behar direla. Dokumentu honetan saiatuko gara argitzen zergatik eta nola.



Bizikidetzeta eta adiskidetzeta
kultura berri baterako

2020

Indargunea

Zergatik behar dira gune errestauratiboak?

Kintsugi (金継ぎ?) (japonieraz: urrearekin egiten den zurgin-lana) edo **Kintsukuroi** (金繕い?) (gauzen konponketa urrearekin) Japoniako teknika bat da, zeramikazko ontzien arrakalak konpontzeko erabiltzen dena. Urre, zilar edo platino hautsa nahasi zaion erretxinazko berniza erabiltzen da. Filosofia baten parte da: hausturak eta konponketak gauza baten historiaren parte dira, eta, ezkutatu beharrean, erakutsi egin behar dira, argitara atera, agerian utzi, objektua ederragoa izateko eta haren antzaldaketaren eta historiaren berri emateko.

Une honetan, hiru baldintza betetzen dira, hiru baldintza sinple:

1. Pertsona batzuek pentsatzen edo sentitzen dutena adierazteko premia eta desioa dute.
2. Pertsona batzuk prest daude entzuteko.
3. Aurreko guztia errazagoa egiten duten distentsio egoera dugu.

Begien bistakoa eta erraza ematen duen hori ez da gertatu uste genezakeen bezain maiz. Nork bere buruari ezarritako isiltasunak, elkarrekiko konfiantza faltak, beldurrak, aurreiritziek edo beste errealitate batzuk ez ezagutze hutsak zailtasunak sortu dituzte: batetik, beren barrena husteko premia zuten pertsona batzuek trabak izan dituzte horretarako espazio seguru bat lortzeko, eta, bestetik, enpatiaz entzuteko prest zeuden pertsonak trabak izan dituzte juzgatuak izan gabe jokatzeko, maiz ekidistantzia leporatzen baitzitzaien, edo traizioa.

Baina topaketa horiek posible ez ezik onak eta beharrezkoak ere badira hiru konpromiso hauek garatzeko: iraganari begira, haren azterketa kritikoa egitekoa; orainari dagokionez, erreparazioa ematekoa; eta, etorkizunari gagozkiola, prebentzioa bultzatzekoa.

Iragana eta azterketa kritikoa

Askotariko istorioak zuzenean entzuteak enpatia sortzen du, eta horrek informazio lerratu edo sinesmen dogmatiko gisa errotoak ditugun ziurtasunak zalantzan jartzea eragin dezake. Kontatzen dituenarentzat, zentzua sortzeko ariketa denez, iraganeko esperientziak ordenatzeko saiakera da, eta horrek esanahi berriak sor ditzake. Hau da, ezinbestean, bizi



Bizikidetzeta eta adiskidetzeta
kultura berri baterako

2020

Indargunea

ditugunez bestelako errealitateak ezagutzeak aurrez aurre jartzen gaitu jarduteko eta sentitzeko erabiltzen genituen "egiekin", eta emaitza gehiago ere ematen ditu, eta ez zaigu hain zaila izango geurea zalantzan jartzea besteen esperientziari eta sentimenduari leku egiteko.

Oraina eta erreparazioa

Elkarri aditzeak giza duintasuna aitortzea du oinarria (norberarena eta bestena): bestearengan nor bere burua ikustea, eta aspektu oinarrizkoenetan onartua sentitzea (gizakiak garela eta hori aski dela errespetua merezi izateko) beharrezkoa da edozein elkarrizketa zintzotan. Errekonozimendu hori berez da erreparatzailea, sendagarria, iraganeko indarkeriak premisa bati eusten baitzion, alegia: bazeuden gauza garrantzitsuagoak pertsona guzti-guztien giza duintasunaren errespetua baino.

Etorkizuna eta prebentzioa

Esperientzia hauek argi erakusten digute zein mekanismotatik eraikitzen dugun "bestea", nola bihurtzen dugun etsai eta nola polarizatzen ditugun harremanak. Giza duintasuna eta "bestearen" errekonozimendua elkarbizitza osasuntsu baterako beharrezkoa den zentraltasunean jarriz egin behar dugun etengabeko prebentzio-lanari buruzko kontzientzia dakarkigute gune horiek. Gainera, espazio horietan parte hartzen duten pertsonak bizi dituzten loturak berreraikitzeke esperientziak ondorioak dituzte haietatik haratago; haien eragina biderkatzailea izan daiteke, litekeena baita haien inguruan harreman-modu berriak sortzea eta transmititzea, baina indarkeriazko egoerak sor litzaketan baldintzen aurrean hobeki blindatuta.

Zer dira gune errestituratuak?

Partaidetza-gune beharrezkoak dira gure ustez. Gune horiek, gutxi-asko antolatua, prozesu zabalagoen parte dira: haietan bereganatzen dute zentzu handiagoa, eta, aldi berean, testuingurua elikatu eta aberasten dute.

Gureak bezalako gizarte konplexu, askotariko eta desberdinetan pixkanaka bidea urratzen ari diren praktika errestituratuak dute iturburu, baina antzinako kulturetan



Bizikidetze eta adiskidetze
kultura berri baterako

2020

Indargunea

errotutako jardunbideak dira, komunitate zentzu handia duten mundu osoko antzinako eta indigenen jardunbideak.

Errekonziliazio hitzaren esanahi etimologikoari erreparatuz gero, ikusiko dugu latinetik datorrela: *re-* aurrizkia du eta *conciliare* aditza du oinarrian. "Concilium" izenari lotua dago (batzarra, bilera, batasuna). Beraz, errekonziliazioaren kontzeptuan, adiskidetzearenean, jatorrian, norbait taldean berriz onartzea da, adostasuna lortzea, batzarrera itzularaztea.

Horrela, bada, adiskidetzea eta harremanak berregitea bide ezin egokiagoak dira zauriak erantzukizunez eta modu konpartituan sendatzen saiatzeko, "lagun hurkoarengan" geure burua ikusiz, duintasuna muinean jarriz, lan eginez halakorik "beste inoiz ez" gertatzeko eta jendearen eta gizartearen premia berriak agerrarazteko.

Jarduera horiek komunitatearen garapena bilatzen dute, bai eta gatazka eta tentsioak lantzeko eta kudeatzeko eta aldi berean kaltearen erreparazioa egiteko gaitasuna ere, harremanak hobetzen baitira eta lotura emozionalak sustatzen. Lagungarriak dira komunikazio afektiboa bultzatzeko (pertsonek sentimenduak dira komunikazioaren muina), bai eta batzuen jokabideak besteei nola eragiten dien hausnartzeko ere. Kontzientzia, enpatia eta erantzukizuna sustatzen dute.

Topaketa horietan, edozeinek har dezake parte: indarkeria modu zuzenean jasan dutenek, indarkeria erabili edo babestu dutenek, bai eta lekuko izan direnek edo gaitik urrun egon direnek ere. Nolanahi ere, gune horiek ez dute bilatzen bizipenak, giza eskubideen urraketa desberdinak eta erantzukizunak parekatzea. Kontua ardura hartzea da: alde batetik, norberak, eta, bestetik, komunitate osoak. Erantzunkidetasun ariketa bat da.

Nolakoak izan behar dute gune errestauratiboak?

Elkarguneak sortzeko aukerak eta baldintzak sortzea da kontua. Elkargune horiek partaideen borondatean oinarritu behar dira, gune seguruak izan behar dute, foku mediatikotik eta prozesuen liskar alderdikoetatik kanpo (testuinguru baten barrenean), gure iragan bortitzen eragina jasan duten pertsonen parte-hartze aktiboa izan behar dute, eta sare soziala eta pertsonen arteko harremanak berregitera bideratutako espazioak izan behar dute.



Bizikidetza eta adiskidetze
kultura berri baterako

2020

Indargunea

Zaintza-gune bat, indarkeria-egoerak saihestu eta betikotzen ez dituen, arazoa konpontzea bilatzen duena, eragindako kalteak konpondu eta eragindako harremanak berregiten dituen, horrela komunitatearen gatazken eraldaketa bermatuko duten harremanen sarea sendotuz.

Topaguneetarako prestatze-lanak zubi eta sareak sortzen ditu. Parte hartzeko prest dauden pertsonak aurkitzeko jardunbidea da, pluraltasuna bilatzen da, eta topaguneetan ahalik eta sentsibilitate eta bizipen gehien aurkituko ditugu. Armiarma-sareen modura, ordura arte gertagaitza zen sare bat ehuntzen da.

Herrietako topaguneeek balio indartsua eta garrantzitsua dute. Goi mailako politikatik haratago, herrian edo hirian gertatzen dira gure eguneroko harreman gehienak, adostasun eta desadostasunak. Gure arteko konfiantza berreskuratu behar dugu, baita besteekin elkartzeko gaitasuna ere, desadostasunari ere beldurra galtzeko. Desadostasuna, giza duintasunaren iparrorratza galtzen ez dugunean, aukera berrietarako eta hobetzeko bidea da.